SmartEnCity PROIEKTUEN BAZKIDEAK

- Fundación TECNALIA Research & Innovation, Espainia
- Vivienda y Suelo de Euskadi (VISESA), Espainia
- Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, Espainia
- Centro de Estudios Ambientales, Espainia
- Corporación MONDRAGON, Espainia
- Fagor Ederlan Taldea, Espainia
- ACEDE HOME CLUSTER / H-ENEA living lab, Espainia
- ETIC-Embedded Technologies Innovation Center, Espainia
- ONDOAN S.Coop., Espainia
- LKS INFRAESTRUCTURAS IT, S.L., Espainia
- ACCIONA Infraestructuras, Espainia
- GIROA S.A.U, Espainia
- CARTIF, Espainia
- Estudios GIS, Espainia
- Sonderborg Forsyning, Danimarka
- ProjectZero, Danimarka
- Sonderborg Andelsboligforening, Danimarka
- BoligforeningenSøbo, Danimarka
- Boligforeningen B42, Danimarka
- Vikingegaarden A/S, Danimarka
- PlanEnergi, Danimarka
- Aalborg Universitet, Danimarka
- Tartu Linnavalitsus, Estonia
- Smart City Lab, Estonia
- Tartu Regiooni Energiaagentuur, Estonia
- Tartu Ülikool, Estonia
- Balti Uuringute Instituut, Estonia
- AS Fortum Tartu, Estonia
- TAKSO OÜ, Estonia
- Telia Eesti AS, Estonia
- Cityntel OÜ, Estonia
- Comune di Lecce, Italia
- RINA Consulting, Italia
- Obshtina Asenovgrad, Bulgaria
- Sofia Energy Centre, Bulgaria
- Steinbeis-Europa-Zentrum, Alemania

LECCE HIRI JARRAITZAILEA

Lecce Italiako hiria Apulia eskualdearen hegoaldean dago eta 95.200 biztanlerekin tamaina ertaina du. Famatua da bere hirigune historikoarengatik eta, halaber, Lecce unibertsitate baten egoitza da. Beraz, bere iragana maite du, etorkizunean inbertitzeaz gain, smart ideiekiko jarrera irekia baitu.

Lecce, Villa Comunale

HELBURU NAGUSIAK:

- Dauden eraikinetan stockaren energia-etekin hobea
- Energia-iturri berriztagarrien erabilera areagotzea
- Airearen kalitatea hobetzea

Kontaktua:
Raffaele Parlangeli, Lecceko udalerria
raffaele.parlangeli@comune.lecce.it

ASENOVGRAD HIRI JARRAITZAILEA

68.000 biztanle ditu Asenovgrad Bulgariako udalerriak eta Plovdiv probintziako bigarren hiria da. Asenovgraden helburua energia-eraginkortasunerako konponbideetara iristea da, energia berriztagarriak erabiltzearekin batera. Horrez gain, herritarrengan ingurumenarekiko kontzientzia lortu nahi du.

Hiri - bizitza Asenovgraden

HELBURU NAGUSIAK:

- Birgaitzearen bitartez eraikinetan energia aurreztea
- Kaleko argiak berritzea
- Tokiko energia berriztagarria (biomasa, haizea, eguzkia) erabiltzea

Kontaktua:
Georgi Angelov, Asenovgrad Municipality
smartencitybg@abv.bg
obstina@asenovgrad.com

www.smartenciudad.eu

HIRIAN SMART SAREA

Klimaren aldaketa egiazko arazoa da eta mundu osoko hiri nahiz gizarteek aurre egin behar diote. Beraz, Europak nahi handiko trantsizio-helburuak finkatu ditu energia-eraginkortasunari eta energia berriztagarriari dagokionez. Proaktiboak izanik, hiriek klima-aldaketa aukera bihur dezakete. Hala, hiri bizigarriak sortuko dira eta hazkuntza ekonomikoa sustatuko da.

smart en city network

Europako hiri txiki eta ertain askok jada energiari buruzko ekintza planak (SEAP) garatu ditu. Hirian Smart Sareak hiri horiek inspiratu eta laguntzen ditu ekintza osagarriak, koordinatuak eta integratuak gauza ditzaten. Helburua, batetik, arrakastaz inplementatzea eta, bestetik, ahaleginak hiri-plan integratuekin lerrokatzea da.

Hirian Smart Sareari esker, hiri konprometituak hiri smartago bihurtzen dira eta energia-eraginkortasun handiagoa dute. Xede horrez, plangintza, etxebizitza, mugikortasun, energia-azpiegitura eta IK-Tetarako planteamendu osoa egiten dute.

Gure ahaleginak, tresnak, ezagutzak eta jardun onenak partekatzen ditugu eta berrikuntza irekian nahiz sortze bateratuan sinesten dugu.

ELKARTU HIRIAN SMART SARERA ETA BIHURTU HIRI AURRERATU, ZERO KARBONO DUENA.

Kontaktua:
Peter Rathje, Zero Proiektua
peter.rathje@projectzero.dk
www.smartencitynetwork.eu

smart en city

TOWARDS SMART ZERO CO_2 CITIES ACROSS EUROPE

VITORIA-GASTEIZ
TARTU
SONDERBORG

Proiektu honek Europar Batasunaren Horizonte 2020 ikerketa- eta berrikuntza- programaren finantzaketa lortu du 691883 akordiopean.

SmartEnCity, DATU GARRANTZITSUAK:

- 3 Faro Hiri:
  Gasteiz (Espainia), Tartu (Estonia)
  eta Sonderborg (Danimarka)
- 2 Hiri Jarraitzailea: Lecce (Italia)
  eta Asenovgrad (Bulgaria)
- 36 Proiektuen Bazkide
- Koordinatzailea:
  TECNALIA Ikerketa eta Berrikuntza
- Iraupena:
  66 hilabete (2016ko otsaila – 2021eko uztaila)
- 28 M € - EBren finantzaketa. Kontaktua

KONTAKTUA

Proiektuaren koordinatzaileak:

Francisco Rodríguez Pérez-Curiel, TECNALIA
francisco.rodriguez@tecnalia.com

Silvia Urra Uriarte, TECNALIA,
silvia.urra@tecnalia.com

Prentsa:

Bettina Remmele, Steinbeis-Europa-Zentrum
remmele@steinbeis-europa.de

GASTEIZKO FARO HIRIA

Gasteiz Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburua da, 240.000 biztanle ditu eta ekonomia berdean egindako inbertsioaren ikuspegitik, Europako udalerri nagusi bat da. Hiriak berdeagoa izateko eta energia-eraginkortasuna, energia berriztagarriak, behe-karbonoko mugikortasuna eta azpiegitura adimentsuak sustatzeko estrategia argia du. Gasteizek "smartagoa" izateko konpromisoa hartu du eta teknologia modernoak erabiltzen ditu, bere herritarren bizi-kalitatea hobetzeko. Beraz, zeregin garrantzitsua du estrategiak definitzea hurrengoak kontuan hartuta: IKTak, mugikortasuna, energia eta hiri-ingurumena. Hala, erakunde publiko, sektore pribatu eta ikerketa-eragileen artean lankidetzan aritzen da.

Lehenengo birmoldaketa-lanak, "horiek hartzen lehenengoetatik" hasita

SMART KONPONBIDEAK GASTEIZERAKO

- **Birgaitze-paketeak Gasteizen**
  Frogarako barrutian 750 etxebizitzatan (60.000 m²) energia birgaitzea, fatxadak, teilatuak, isolamendua eta, kasu batzuetan, leihoak barne.
- **Hiri-kudeaketaren sistema**
  Hiriaren plataforma honek IKT sistema guztiak barneratzen ditu eta eraikin birgaituetan energiaren erabilera kontrolatzea ahalbidetzen du.
- **Berokuntza-sistema biomasarekin**
  Gasteizen biomasarekin berokuntza-sare berriari esker, energia-prezio hobeak lortzen dira, mantentze-lan nahiz funtzionamendu-kostu txikiagoekin eta segurtasun hobearekin.
- **Birgaitze-paketeetan herritarrak nahasteko estrategia**
  Herritarrak nahasteko estrategiak demo eremuaren barruan herritarrekin komunikazioa ziurtatzen du.
- **Smart autobus elektrikoak**
  13 ibilgailu berrik, erabat elektrikoek, 2 lineako egungo zerbitzua ordezkatuko dute 10 kilometroko ibilbidean 24 geltoki berrirekin. Erabiltzaile, informazio, segurtasun-sistema eta gidatzeko laguntzaren eremuetan teknologia berriztaztaileaz hornituko dira.

Kontaktua:
Alberto Ortiz De Elgea Olasolo, VISESA
Alberto.o@visesa.eus

SONDERBORG FARO HIRIA

Sonderborg Danimarkako udalerria da eta Danimarka nahiz Alemaniaren arteko mugatik hurbil dago. Asmoa 2029. urtea baino lehen karbono-igorpenak zerora murriztea da eta, horretarako, herritarrekin eta stakeholder izenekoekin duten lankidetza estuan oinarrituko dira, gizarte publiko-pribatu indartsuari eutsita. Sonderborgen ibilbideak energia-eraginkortasuna hobetzea du helburu, beste hauekin batera: energia-iturri berriztagarri bihurtzea, garraio berdea, "smart" konponbide integratuak eta heziketa. "Zero Proiektuari" esker, herritarrek, enpresek, erakundeek eta hiriko udalak Sonderborgetik karbono-igorpenen zero-helmugara bidaia planifika, sor, inplementa, neur eta zuzen dezakete. Udalaren xedea artisautzaren, industriaren, turismoaren eta hezkuntzaren eremuetan lanpostu berde berriak sortzea da. Pentsamolde berri partekatua sortzea funtsezkoa da Sonderborgeko asmo handiko jomugetara iristeko!

Sonderborgen biogasarekin autobus berriak kargatzea

ORAIN ARTE ERABILITAKO HIRI-KONPONBIDEAK:

- **Biogas-autobus berriak eta biogasa kargatzeko estazioak**
  Energia-eraginkortasuna duten 44 autobus berri erabiltzea; gainera, bizikletak eramateko gai izango dira.
- **Herritarrak nahasteko programa**
  Herritarrak nahasteko programa izanda, etxebizitzen elkarteak birgaitze-jardueratan nahasiko dira.
- **Sonderborgeko birgaitze-paketea**
  3 elkarte partaideetan 45 unitate anitz birgaituko dira eta energia-kontsumoa murriztuko dute, barne-klima hobetu ere bai, eta Sonderborgi lagunduko diote 2029. urtean karbonoaren zero mailara iristen. Era berean, teilatuetan eguzkipanelen sistemak instalatuko dira.

Kontaktua:
Iben Nielsen, Sønderborg Forsyning
ibni@sonfor.dk

TARTU FARO HIRIA

Tartu zientzialarien, adimen sortzaileen eta ikasleen hiria da eta berrikuntza nahiz pentsamendu progresistaren kultura piloa elkartzen da bertan. Tartuko Unibertsitateak 14.000 ikasle ditu, hau da, biztanle guztien % 15. Tartu jada smart hiri modura ezaguna da. e-zerbitzu aitzindariak eta paperik gabeko administrazio-jardunak ditu.

Fortum, Tartun hozte-estazio erkidea

Hala, munduko lehenengo udalerrietako bat da smart konponbideak ezartzen, hala nola, m-aparkamendua (aparkatu eta mugikorreko app-ren bidez ordaintzea), doako Wi-Fi publikoa, e-hauteskundeak, e-osasunerregistroak, hiriko zerbitzuekin mugikorrerako appak, sinadura digitala, taxi-zerbitzu elektrikoa erabat, etab. servicio de taxi totalmente eléctrico, etc.

TARTUN SMART KONPONBIDEAK:

- **Tartun birgaitze-paketeak**
  Tartuko aro sobietarraren "khrushchyovkas" eraikinak "smartovka" bihurtzea, zero energiarekin. Ildo horri eutsiz, ingurune modernoa, energiaren ikuspegitik eraginkorra eta goi-kalitatekoa eskaintzen dute eta, gainera, smart konponbideekin etxean.
- **Hondakin-beroa erabiltzen duen hozte-sistema**
  Hozte-sistema erkide honek ponpa bat erabiltzen du eta berokuntza-sistema erkiderako beroa ekoizten du. Xede horrez, hoztearen hondakin-beroaz baliatzen da.
- **Bizikletak partekatzeko sistema publikoa**
  Bizikleta arruntekin eta e-bizikletekin bizikletak partekatzeko sistema publikoa instalatzea. Plangintza paritarioaren bitartez 65 aparkaleku ditu.
- **Gas-autobusak garraio publikoan**
  Autobus zaharren, hots, erregai fosil zaharrari esker dabiltzanen ordez, 62 autobus berri erabiliko dira, gasa dutenak erregai, 2019. urtea baino lehen garraio publikoaren sistema iraunkorragoak eta ekologikoagoak lortzeko.

Kontaktua:
Raimond Tamm, Ciudad of Tartu
Raimond.Tamm@raad.tartu.ee